



IRAGARKIA

PROBALDIAN DAUDEN LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK IZENDATZEA, UDAL-ERAIKINETAKO ARDURADUNAK, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKO IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN PROZESUAN, HAUTAKETA-PROZESUAK AMAITU ONDOREN.

Alegria-Dulantzin, 2025eko apirilaren 24an, eguerdiko ordu batean, Joseba Koldo Garitagoitia Odria alkate jaunaren bulego ofizialean, Vanessa Domínguez Casal idazkaria bertan dela.

IKUSITA 2022ko maiatzaren 4ko osoko bilkuraren erabakia, erreferentziako oinarriak eta deialdia onartzen dituen..

IKUSITA 2022ko abenduaren 16ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratutako iragarkia (huts-zuzenketa 2023ko martxoaren 17ko ALHAOn, 32. zenbakian) eta deialdiaren laburpen bat (2023ko apirilaren 17ko BOE, 91. zk.). Deialdi horretan, egiturazko izaera duten lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko hautaketa- eta deialdi-oinarriak argitaratu ziren, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan.

IKUSITA Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa mandatu, Arabako Foru Aldundiari agindutakoa.

IKUSITA 2023ko apirilaren 17ko 91 zenbakiko BOEn argitaratutako iragarkia, eskaerak aurkezteko epea irekitzen duena.

IKUSITA 2023ko azaroaren 27ko dekretua, izangaien behin betiko zerrenda eta behin-behineko puntuazioa onartzen dituen..

IKUSITA Epaimahaiak behin betiko puntuazioekin hartutako akordioa eta 2024ko urriaren 3ko izendapen-proposamena..

IKUSITA 2025eko otsailaren 13ko dekretua, udal-erakinetako arduradunaren lanpostua esleitzea proposatzen duena.

IKUSITA proposatutako pertsonak deialdiko oinarrien 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera bidali dituela agiriak.

Agintari horrek ebazpen hau eman zuen:

LEHENENGOA. Honako pertsona hau izendatzea, probaldian dauden lan-kontratuko langileen hurrengo ,eta Alegria-Dulantziko Udaleko lanpostura atxikitzea. Hona hemen:

LANPOSTUA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA MOTA	PROBALDIAN DAGOEN LANGILE IZENDATZEA
Udal-erakinetako arduradunak (kiroldegiko langilea) – 03.003	AP	Administrazio orokorreko eskala, mendekoan azpieskala	JON ANDER ALZOLA LIÑARES

Izendapen horrek ondorio administratiboak izango ditu dekretu honen dataren hurrengo egun baliodunetik aurrera, hau da, 2025eko apirilaren 25etik aurrera.

BIGARRENA. – Probaldian izendatutako lan-kontratuko langileek hilabete izango dute lanpostura itzultzeko, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

HIRUGARRENA. Plazaren atxikipena behin-behinekoa izango da, praktikaldia amaitu arte. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak jasoko ditu, salbu eta praktiketako funtzionarioen ordainsariak finkatzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.





Probaldia amaitu eta gero, lan-kontratuko langile finko izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

LAUGARRENA.- Juan José Alburquerque Gajate izango da tutorea.

BOSGARRENA. – Interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA. – Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-oholean eta www.alegria-dulantzi.eus web-orrian argitara dadila agintzea.

ZAZPIGARRENA. – Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari, egiten den lehenengo bilkuran, eta Lehendakaritzaren Dekretu eta Ebazpenen Liburuan transkribatzea.

Alegria-Dulantzin, dokumentu honen sinadura elektronikoaren egunean.

ALKATEA.-

